

bidegileak



Jose Mari Larrarte (1926-2004)

Egilea:

GREGORIO ARRIEN

Itzultzailea:

FÉLIX ZUBIAGA

Sorterria eta familia

Jose Mari Larrarte (fraidetzan Luis Maria) Bidanian, Azpeitia eta Tolosa bitartean dagoen herrian, jaio zen 1926ko urtarrilaren 4an. Zazpiehun bat biztanle zituen orduan eta nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi ziren gehienak. Zazpi seme-alabako familian (hiru mutil eta lau neska) igaro zituen lehen urteak zazpi senideetan bigarrena zen Jose Mari. Bere gurasoak laborari apalak, Apaiko baserrian bizi ziren: etxeko guztiek, txiki eta handi, lan eginaz. Eskola-orduetatik kanpora zain izaten zituzten txikiak baserriko lanak.



Jose Mari Larrarte Garmendia (1926-2004)

Gabiriako Pasiotarren Ikastetxean sartu zen Jose Mari 1938 urtearen azken aldera, ia hamahiru urte zituela. Urte bi geroago, sartu zen Koldo Sarasola, bere lehengusua, Asteasuko semea. Harrezkero lankide izan ziren euskal kulturako zenbait lanetan. Bion osaba zen Bernabe Larrarte pasiotarrak, predikari eta herri misiolari euskaldunak, gidatu zituen Gabiriako Ikastetxera.



Bidania, J.M. Larrarteren jaioterria



Apako baserria

Ikasketak

Gudaldia eta guda ostea nahiko larriak izan ziren Gabiriako Ikastetxean, batez ere hornigaiei dagokienez. Gurasoen ardura ere gehitu egiten zen guda mugaren arriskuagatik. Hori dela eta, etxera bidali zituzten 1935-1936 ikasturtearen azkenean. Urte bete itxita eduki ondoren, 1937ko abuztuan itzuli ziren lehen-go ikasleak. Ez guztiak, jakina.

Guda ostean ere, lehen-go arazo berberak jarraitzen zuten Gipuzkoan eta Bizkaian: hornigaien eskasia alde batetik eta pasiotar irakasle eta zuzendarien aldaketak bestetik.

Hala ere, 1938-1939 ikasturtean hogeita hamar ikasle berri etorri ziren Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabatik; euren artean gure Jose Mari Larrarte.

Lehen urteetan, latinari ematen zitzaion lehentasuna. Gero, gaztelania, geografia eta erlijioari. Matematikak eta orokorki zientziak bigarren mailakotzat jotzen ziren. Euskararen ikasketak ere Humanitateen bigarren ikasturtetik aurrera hasten ziren, astero lau ordu. Ikastetxea, bestalde, erlijioso bizitza eta apaizgorako seminarioa bezala antolatua zegoen eta «munduko arriskuetatik aldentua».



Gabirian, guraso eta nebarrebeekin

Pasiotarren artean bazen, jada guda aurretik, euskaraganako zaletasunik, Martin Elortza, Benigno Zenarruzabeitia, Kamilo Letamendi eta Bernabe Larrarteri esker. Martin Elortzaren lana eta eragina aipatzekoak dira, nafar erdaldunek ere euskara ikasgai izatea lortu baitzuen. Nahiz gudateak asmo eta egitarau asko hankaz gora utzi, Martin Elortzak *Euskal atzizkien bilduma* sailkatu zuen.

Antza denez, Ikastetxeko aurren urteetan Pablo Zamarriparen *Gramática Vasca* (1909) eta Jose Zabala Aranaren *Gramática Vasca. Guipuzkoera* (1930) izan ziren erabilienak.

Humanitateen azken urteko emaitzari begira, Jose Mari Larrartek batez beste Oso Ondo ematen zuen: latina, erretorika, frantsesa, euskara, erlijioa eta historia orokorra.

Gabiriako Ikastetxean 1942an ikasle berrien talde handia bildu zen. Jose Mari eta bere ikaskideak Angostoko nobiziatuara joan ziren urte horretako maiatzean. Urtebete geroago, 1943ko maiatzaren 23an, egin zuten profesia. Hilabete batzuetan filosofiako hasimasiak han egin ondoren, Meliden (Coruña) egin zituzten filosofia ikasketak. Teologikoak, berriz, Deustuan. Horietatik zazpi apaiztu ziren 1949ko abuztuaren 7an.

Gabiriako Ikastetxea garai hartan

Gaztaroko lanak

Filosofia eta teologiako ikasketetan askatasun handiagoa izan ohi zen gogoko liburuk irakurtzeko eta norbere gustuko lantxoak egiteko. Garai haiek ez ziren euskal lanak argitaratzeko egokienak, baina komentuko liburutegietan bazeuden ondo gordetako liburu eta aldizkari batzuk. Ez ziren asko, ez tituluz edo autorez ugariak, baina bai euskal kulturari aukeratuak: Azkue, Lizardi, Lauaxeta eta beste mailakoak.

Idazketa eta etxerako argitalpen mailan, 1940 inguruan hasita *Horizontes* izeneko aldizkaria zen literaturan eta zientzian burututako fruituen plaza. 1953an, Deustutik Urretxura aldatu zen. Aldizkaria 60 orrialdekoa izan ohi zen, euskarazko eta erdarazko idazlanen oso-tua. Gaiez ugaria eta maiz edukiz ezberdina: teologia, musika, literatura, artea, historia, gizarte gaiak eta albisteak.





Jose Mari Larrarte

Jose M. Larrartek *Horizontes* horretan argitaratu zituen bere lehen idazlan eta olerkiak, 1946tik 1948ra. Batzuk gaztelaniaz argitaratu zituen: «Yo soy el Buen Pastor», «Desde la cuna hasta la sepultura», «¿Quién piensa en eso?». Beste batzuk, euskaraz: «Ba'noakizu», «Jaupal gogo lili», etab.

Aipatutako lehen poeman misiolarien lana, etxekeogandik hain aldendua, aipatzen da:

[...] Atzo biotz ezti-yario
gaur negar-ozpin dario,
miñaren miñez aberriari
urrundu bear natzaio
[...] Agur ene erriño, sendi;
agur, baso, zelai, mendi;
agur bero damaitzuet oroi:
agur zurire, Euskalerrri.



Familia osoa eta osaba
Bernabe Larrarte

Irakaskuntza, lanik behinena

«Bai, irakasle izan nauk beti; beste lan batzuk ere egin nituen garaian, hori ere tarteka eginen nian» erantzuten zien berak horri buruzko galderei. Jose Mari Larrarte, apaiztu zeneko, irakaskuntzari, heziketari eta euskal gaien ikerketari emana bizi zen. Bereziki euskal gramatika zen bere ardurakoa. Noranahi bidaltzen zutelarik ere, hartantxe zeukan gogoia.

Gabiria eta Eubako Ikastetxeetan edo Urretxuko Ikastolan lan egin zuen 1949tik 1976ra. Gero Iruñean denbora laburrean, baina bete-betean. Hortik, Gasteizko Eusko Legebiltzarrera aldatu zen.

Gabiriako Ikastetxe zaharrean

Ikasle garaitik ezagutzen zuen Gabiria Jose Marik. Meza berria (1949-08-14) ere bertako kaperan ematea egokitu zitzaion. Ikasle ezaguetatik zegoen eliza. Halako ospakizunaren ohoretan Perosi-ren *I Pontificalis* meza abestu zuen koruak. Bernabe Larrarte, osaba, izan zuen sermolaria; aitabitxi, berriz, Bidaniako erretorea. Meza ostean Urretxuko dantzari txikiek loratu zuten plaza eta Uztapide eta Muñoa bertsolariak gozatu jaiak. *Kroniketan* agertzen denez, Ikastetxeko areto nagusian izan zen bazkaria 65 bazkaltiarrekin.

Gabiriako umeen irakasle





Bernabe Larrarte, J.M. Larrarte eta Koldo Sarasola

Goiztiar hasi zen irakasletzan Jose Mari. Goizik erakutsi ahal izan zituen zeregin honetarako dohaina eta aurreko maisuengandik harturiko pedagogia. Hala ere, osasun gorabeheragatik edo, 1950eko martxoan Melillako soldaduetara deitu zutelako, hasi berria zuen lana eten behar izan zuen. Soldaduekiko lana, berriz, igandetan meza, erlijio ikasgaiak noizbehinka, irakurtzen eta idazten irakastea, lehen Jaunartzea egin gabekoei dotrina ematea eta abar. Han ezagutu zituen euskaldun gazte batzuk ere, Etxabe X. pilotari bikaina adibidez. Geroago, 1957an, Euban zela, berriro ere Afrikara joan beharra izan zuen, alferrez kapilau bezala oraingoan.

Latina, euskara, solfeoa eta gregorianoa irakasteari ekin zion 15 urtetan. Latinean maisu egin zen eta 1952an argitaratu zen *Tratado de oraciones y modismos latinos* liburuxkan parte hartu zuen. Berau izan zen Ikastetxean argitaratu zen lehen liburua.



Meza berrian, bere gurasoekin

Euskara arloko langaiak 1954-1960 garaian ez ziren ugari: Santi Onaindiaren *Milla olerki eder* (1954), Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu*, Felix Bilbaoren *Ipuin barreka*, Iratzederren zenbait olerki, Orixeren *Euskaldunak*, Jokin Zaitegiren *Euzko-Gogoa* aldizkaria eta Jon Etxaideren *Joanak joan* eleberria.

Koldo Sarasolak harrigarritzat jotzen zuen Jon Etxaideren *Joanak joan* beren eskuetara heldu izana. Autoreak Gabiriako seme Joxe Muruari erakutsi zion liburua argitaratu aurretik (1954), hango eduki eta formei buruzko iritzia eskatuz. Muruak, berriz, Jose Mari Larrarte eta Koldo Sarasola lehengusuei eman zien. Ezer eztabaidatu gabe ontzat eman omen zuten eta halaxe argitaratu 1955ean. Eleberraren aipamena egin zuen Euskaltzaindiak, nobela saria emanez.



Melillan gudarien kapilau

Euzko-Gogoa aldizkariarekin ere harremanik izan zuten bi lehengusuok. Gazteentzat irakurgai egokiak eskatzen zizkien Jose Mari Larrartek. Harreman horietan zerikusirik izan zuten Joxe Muruak eta bereziki Jaime Kerexetak, Gabiriako ikastetxean ikasle izana zenez. Hain zuzen, Murua bera arduratzen zen aldizkaria banatzeaz. Ikasleei euskaraz irakurtzeko baliagarri zitzaien *Euzko-Gogoa*.

Jose Mari Larrartek euskal gramatika sakontzera eta irakastera jo zuen bere maisutzaren hasieratik. Ikasten eta irakurtzen zuen guztia helburu horretara zuzentzen zuen. Koldo Sarasolarekin batera bizkaierazko eta gipuzkerazko euskal aditzaren eskema antolatu zuen, «Euskal aditza eta atzizkiak» (1954), Martin Elortzak utzitako lanei jarrai-



Melillan gudari taldearekin

ki. Jose Mari Iriondori telebistan egindako elkarrizketan aitortzen zionez, euskal aditzaren historia lehendik zetorren: «Elortzak zizkian bilduta atzizkiak eta nik hartu eta osatu nizkian... Eta gero hortaz baliatu ninduan forma osatu eta dena txukuntzeko. Aditzarena, bizkaierazkoa zeukan bilduta hark, eta bizkaierazkoa hartu, zerbait aldatu eta gero, gipuzkerakoarekin parean jarrian, morfema guztiak errazago ikasteko eta orduan, eskola berean, bizkaitarrek, gipuzkoarrek eta nafarrek ikasten zitian bai bata eta bai bestea».

Gabiriako garaian poemagintzan jarraitu zuen Larrartek, «Bertso berriak» deitu sortan. Bertsook omenaldietarako edo ospakizun eta jaialdi berezietarako prestatzen zituen, ikasleek abes zitzaten, orduko ohitura zen bezala.



Ikasle ohien bileran (1981)

Eubako Ikastetxe berrian


Eubako (Zornotza) Ikastetxea Ibaizabal er-tzeko muino baten gainean eraiki zen eta 1956ko irailaren 14an handikiro ireki zituen ateak. 45 urtez pasiotarren Eskualdeko Se-minarioa izan zen Gabiriako ikastetxe txiki eta zaharkituaren ordez eraiki zen, pasio-tar ikasleen kopuru ugariagoari toki egitea-rran.

Gabiriako ikasleak, lehen kurtsokoak izan ezik, Eubara aldatu ziren irakasleekin batera. Jose Mari Larrarte ere denekin batera etorri zen Eubara. Bost urteko Humanitate ikaske-tak sei urtera luzatu ziren. Batxilergo ofizia-lari bide egitea erabaki zuten, gainera. Lau-garren eta seigarren errebalida ere sortu zen 1966an. Urte bi geroago ikasketak PREUrai-

no luzatu ziren. Larrarte bera zen heziketa orokorreko aldakuntza berrien arduradun.

Irakaskuntza lanari zegokionez, ikasgai ber-tsuak ematen jarraitu zuen Larrartek, baina ikasle haziagoei. Urte batzuetan frantsesa eta grekoa ere eman behar izan zituen. Adi-bidez, 1966-1967 ikasturtean, seigarrengeon latina, euskara eta musika eta laugarren eta bosgarrengeon frantsesa eman zituen.

Idazkera egokitzeko, Ikastetxeak *Bidez* aldizka-ria argitaratzen zuen 1963tik. Bertan azaltzen ziren klasean burututako lanak. Hasieran, Gon-tzalo Arrietak eta gero, Larrartek berak gida-tua izan zen. 1968 arte iraun zuen. Beste aldiz-kari bat ere bazen, gaztelaniaz: *Amistad*. Bestea bezala, ikasle bertsuen lanez osatzen zen: idazki labur eta atseginak, marrazki egokiez loratuak.



Larrarte Eubako «Euskal Jaien» argazkari

Ikasle asko heldu zen Larrarteren eskolan. Besteak beste, gero euskal kulturaren garatu ziren Jose Mari Iriondo, Xabier Mendiguren, Ricardo Badiola, Joseba Zulaika, Josu Legarreta, J.J. Zearreta, Santi Gabilondo, Jose Luis Etxeberria, J.M. Mendizabal, etab.

Euskal poemak idazten jarraitu zuen Larrarterek txolarteetan. *Redención* aldizkarian argitaratu ziren batzuk, J.I. Lopategik euskarazko arnasbidea eman nahi baitzion bere gidaritzapeko aldizkariari. Argitaratu zituenen artean aipagarri dira «Calvario ez...», «Sagrario», «Kimu berri» eta «Neguz udaberri». Ama Nahigabetuaren Gabirel Donea aipatzen du «Kimu berri» horretan. Azken ahalaldian honela dio:

Gaztaro zuri, Gabirel, gure
gaztediaren elburu,
erakus ezaiguzu egizko
zorionaren sorburu:
lurminak utziz Jainkoz betetzen,
gero dezagun goi-zeru,
gure bizitza onen negutez
erein azien galburu.



Bordeleko frantses ikastaroan



Eubako irakasle taldearekin



Eubako Seminarioa



Urretxuko txikien dantza taldearekin

Urretxuko Ikastolan

Osasunaren ajez Eubako Ikastetxea utzi beharra izan zuen 1967 eta 1968an, aldi baterako: urdaileko ebakuntza egin zioten Deustuko Dr. San Sebastián Klinikari. Ebakuntza horien ondorioz, ahuldurak jo zuen, eta Eubara itzuli zen arren, Irungo patxada eta atsedena aholkatu zizkioten. Bide batez, Pio Baroja Institutuan PREU egiten ziharduen gure arteko gazte mordoxkari lagundu zion.

Handik Urretxura aldatu zen 1969an. Ia hasieratik, Lourdesko Amaren Ikastolan ekin zion, kanpotiko inspektioari noizbehinka aurregia emanez eta. Ikastola txikia zen Urretxukoa eta euskara eta erlijioa irakasten zituen bertan.

Urretxun zegoela, 1970-1971 kurtsoan ikasketak erromanikoak egitea erabaki zuen. Ikastolako lanak amaitu ondoren, Donostiako

EUTEGra joaten hasi zen. Ikastaldiok arratsaldeko bostetan hasten ziren. Horrela osatu zituen Erromaniketako bi kurtso arruntak. Handik aurrera Irundik jarraitu ahal izan zituen Unibertsitateko beste kurtsoak. Asteburuetan Urretxura itzultzen zen, hala ere.

Ikasketak 1974-1975ean amaitu zituen. Lizentziaturako tesinatzat «El prefijo *Bait* en “Onsa hilceco bidia” de Juan Tartas» hartu zuen. Patxi Altunaren eta M^a Jose Azurmendiren gidaritzapean aurkeztu zuen, Koldo Mitxelena mahaiburu zela. Geroago, Gasteizen zelaririk, Euskal Filologia osatu zuen. Doktorego kurtsoak ere egin zituen, baina ez zuen aurkeztu tesirik. Koldo Mitxelenak esana gogoratzen zuen Larrartek berak: «tesinak berak ere balio zukeen doktoredutza tesirako».

Ikasketa erromanikoak amaitu eta berehala Urretxuko komentura itzuli eta Ikastolako lanean jarraitu zuen.



Ikasle ohiek egin omenaldian. Euba, 1993

Iruñeko aldia


Afarroako Foru Aldundiak, beste euskal erakundeek baino lehenago, hartu zuen euskara bermatzeko ardura: 1956ko azaroaren 28ko erabakian, Vianako Printzea Erakundearen bidez, Euskara Bermatzeko Saila sortu zen eta 1967ko urtarrilaren 25ean irakaskuntzaren oinarriak onartu ziren. Beraz, 1972ko abenduan Aldundiak «Euskara irakatsi eta bermatzeko oinarriak» ontzat eman zituen.

Hurrengo urtean, maisu eta irakasleak euskalduntze-alfabetatzeko arduraz, Udako Euskal Ikastaroari hasiera eman zitzaion Iruñean. Lehen ikastaroa uz-



Tabor Basilika aurrean erromes

tailaren 16tik abuztuaren 11ra izan zen, Aldundiaren babesean eta Jon Oñatibia, letretan ezaguna, zuzendari zela. Ikastaro honetan 60 eskolako maisuk eta andereñok parte hartu zuten. Bigarren Uda Ikastaroan (1974), Jon Oñatibiaz landa, Manuel Lekuona, Santi Onaindia, J. M. Barandiaran, Jose Mari Larrarte, Jose Agustin Orbegozo, Fermin Iraolagoitia, Jesus Gaztañaga, Uriarte, Estomba, eta abarrek hartu zuten parte. Ikastaroen amaieran Diputazioko Tronu Aretoan banatu ziren



Poemak

diplomak. Sole Erbiti eta Martzelino Garde antolatzaileak, Juan A. Ziordia Foru Aldundiaren irakasletza zerbitzuen zuzendaria eta Nafarroako Hezkuntza Ministerioaren ordezkaria bildu ziren.

Hurrengo urtean (1975) 60 irakaslek esku hartu zuten euskalduntze eskolan. Ikastaldi horiek urterik urte indartu ziren: 1976ko Uda Ikastarora 80 irakasle hurbildu ziren. Euskararen irakasketetan Larrarte, Gaztañaga eta Oñatibia taldeak jarraitu zuen.

Larunbat goizetan euskara eskola ematen zuten, udako ikastaroaren osagarri, J.M. Larrar-

te, K. Sarasola, T. Epalza, J.M. Iza, J. Gaztañaga eta beste batzuek.

Urretxun bizi zela eta oraindik hango ikastola ardura zuelarik, hasi zen Larrarte Iruñeko Euskal Ikastaroan irakasle. Nafarroako Al-
dundiaren erabakiz, 1977an Larrarte bera izan zen Uda Ikastaroaren zuzendari tekniko-
koa. Beraz, Hezkuntza eta Zientzia Ministe-
rioaren laguntzaz, ikastaroa abuztuaren 1etik
11ra egitea baimendu zuen Nafarroako Al-
dundiak, Jose Mari Larrarteren zuzendari-
tzapean. Unibertsitatean OHOk irakasle-
goaren zuzendari behinena ere bera zen
orduan.

Euskara Katedraren arduradun

OHOko irakasleen heziketarako, Irakasle Eskolan euskara katedra jartzeko ahaleginetan hasi zen Nafarroako Aldundia, 1976ko urriaren 15ean. Garrantzi handikotzat jotzen zen euskara katedra. Eskolaurretik hasita heziketa maila guztietan euskara bermatzeko erarik onena zen, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko (OHO) Legearen (1970) eta Nafarroako Aldundiaren «Euskara irakatsi eta bermatzeko oinarrien» arabera.

Halatan, beraz, Nafarroako Aldundiak Jose Mari Larrarteren eskuetan utzi zuen euskara katedra. Larrarteren Filosofia eta Letretako (Filologia Erromanikoaren Saila) Lizentzia titulua, bere hogeitaka urteko irakaskuntza, Urretxuko ikastolan irakasle eta Udako Ikastaroen antolatzaile izana hartu zituen kon-tuan.

Jose Mari Larrartek onartu egin zuen izendapena, euskararentzat onuragarria eta bere irakasle bizitzan beste erronka bat zelako. Bestalde, umeak eta gazteak utzi eta, jende haziarekin eta helduarekin hasi nahia ere bazuen. Irakasle talde batek, ordea, eskakizun agiria aurkeztu zuen Aldundiaren aurrean: Euskaltzaindiak egindako izendapena izan zedila, euskara batua irakatsi behar zela, eta abar. Ezin ahazturiko zimikoa egin zion Jose Mari Larrarteri agiriak. Dena den, aurrera egin zuen. Ez baitzen berak aukeratutako

ohorea. Nafarroako Aldundiaren laguntza zuen bere alde, gainera.

Maisuen Eskolako klaseak 1976ko udazkenean hasi ziren. Zaragozako Unibertsitateak 1976ko abenduaren 30ean eman zuen horretarako baimena. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak ere gauza bera egin zuen. Urretxutik harako bidea nekagarri zitzaiola eta, hurrengo abuztuan Tafallako pasiotarren komentura aldatu zen. Aste barruan Iruñeko Damas Apostólicas-en etxean izaten zuen ostatu.

Oldezko ikasketa zen euskara eskola hartan. Larrartek alfabetatze lana zuen. Euskalduntzeaz, berriz, bere laguntzaileak arduratzen ziren. Euskara katedra antolatu eta bideratzeko aldia igaro zeneko, Jose Mari Larrarte bere eginkizunean bermatua izan zen 1977ko otsailaren 2an. Laguntzaileak aukeratzeko eskubidea ematen zitzaionez, Jose M^a Iza Etxebeste, Frantzisko Artola Elberdin eta Uxue Oregi aukeratu zituen. Irakasleen artetik bost monitore aukeratu zituen: Frantzisko Agorreta, Geronima Sorabila, Maria Dolores Estanga, Esperanza Atxa eta Maria Isabel Maiora.

Astean hiru ordu ematen ziren. Gela bakoi-tzean 10 edo 14 ikasle egoten ziren, guztira 100 zirelarik. Ikasle batzuek gero andereño lanari ekin zioten, EGA titulua eskuratu bezain laster. Ikasteko lanabesen artean behinena Eguzkitzaren *Euskara Bizitik* (1976) zen. Horretaz gainera, Larrartek bere apunteak erabiltzen zituen.

Hizkuntza Eskolan irakasle

Hizkuntza Eskola eskatzen zuten ikasleak gero eta gehiago ziren Nafarroan. Foru Aldundiko Hezkuntza Zuzendaritzak Iruñean bat eraikitzea erabaki zuen. Eta bost urtetan 1976/77tik 1980/81ra Bilboko Eskolakoak joaten ziren Iruñera oldezko matrikula eta emaitzen azterketak egitera. Harreman guztiak Nafar Foru Aldundiko Hezkuntzaren zuzendari zen Juan A. Ziordiarekin egiten ziren. Harremanotan Jose Mari Larrartek zerikusia izan zuen, euskara sailekoa baitzen.

Nafarroako Hizkuntza Eskola, Bilbokoarekiko lotura utzi eta, Zaragozakoarekin elkartu zen. Aldundiko Hezkuntza Sailak deituriko lehiaketa bidez izendatu ziren irakasleak. Euskararako Jose Mari Larrarte eta Inigo Andres izendatu ziren.

Bestalde, Foru Parlamentuko lehendakariaren eskabidez, behin-behineko Mahaiak euskaratzaile biren lana alokatzea erabaki zuen 1979ko urriaren 2an. Horretarako Euskaltzaindiari eskatu zion baldintzen agiria. Nafarroako Hizkuntza Eskolen Zuzendaritzak Jose Mari Larrarte Garmendia, Frantzisko Uribarren Leturiaga, Sole Erbiti Arbilla aukeratu zituen epai-mahaikide, Víctor Manuel Arbeloa Muru Foru Biltzarreko Lehendakariaren zuzendaritzapean.

Baina agindutako frogak, ez dakigu zergatik, ez ziren egin. Halatan, dei berria egin zuen Foru Biltzarrak, 1980ko urriaren 14an, hizkuntza itzultzaile biri tokia egiteko, bata tituludun eta bestea ordezkari gisa. Zazpi hautagai aurkeztu ziren.

Eusko Legebiltzarreko langileei egindako omenaldian (1990)



Eusko Legebiltzarreko itzultzaile

José Mari Larrartek berak azaltzen zuenez, Josu Oregik deituta, Eusko Legebiltzarreko itzultzaile elebidun izatera heldu zen 1980ko urriaren 10ean. Lan berria Iruñeko Maisu Eskolako euskarara irakaskuntzarekin batera eraman zuen. Hori dela eta, 1981eko abuztuan Gasteizko pasiotarren etxera aldatu zen bizitzera.

Testu aldatzaile eta bat-bateko itzultzaile lanak egin zituen lehenengo urteetan. 1985ean, berriz, Eusko Legebiltzarreko langile izendatu zuten Ele-aldeketa eta Administrazio Orokor Zerbitzuetarako.



Legebiltzarreko Aipamen berezia

Berak esaten zuenez, hasieran bat-bateko itzulpen lana gogor samarra gertatzen zitzaien.

Handik hamar urtera jubilatua zen lanetik. Bost urtetan ele-aldatzaile eta idazle jardun zuen eta beste bostak ele bitan idazle, euskaraz eta gaztelaniaz.

Baina Gasteizko jardunaldian ere ez zuen baztertu bere irakaskuntza, Bergarako UNEDn EGA titulurako izangaiei larunbatero irakasten zien euskara.



Euskaltzain ohorezkoa izendatu zutenean (2002)



Euskaltzain ohorezko agiria

Euskaltzaindian

Jose Mari Larrartek gogoratzen zuenez, Iruñeko garaitik ezagutzen zuen Euskaltzaindia. Gero, lau batzorde ezberdinetan egin zuen lan: Azkue Bibliotekako batzordean, gramatika, lexikoa eta testuen eta, bereziki, *Euskera* aldizkari ofizialeko zuzenketa eta orrazketan.

Gramatika batzordean ia hasieratik ekin zion lanari, 1981 inguruan. Argitaratu ziren liburu eta artikuluz guztietan hartu zuen parte. Lan behinenak «Euskal Gramatika: Lehen Urratsak» (EGLU) bildumetan batuta daude, taldean antolatu eta argituak dira, batzar askotako eztabaida, idazketa, ohar eta zuzenketekin. Geroago aipamen berezia egingo dugu gramatika arloan egindako lan eta laguntzaz.

«Lexiko-Erizpideen Finkapena» (LEF) batzordean parte hartu zuen 1986tik. Hiru arlo landu zituen batzorde honek: hitz-elkarketa, eratorriak eta, aurreko bien osagarri, erdal aurrizkien euskal ordainak.

Azkue Biblioteka batzordeak dozena erdi batzatar egiten zituen urtero. Azken urteetan ardura bereziaz gainera: informatikaz gaurkoturiko katalogazioa lortu euskarari eta, nazioarteko bibliotekonomia arauak errespetatuz, estandar bat sortu. Jose Mari Larrarte 1993an izendatu zen batzorde honetako kide. Euskararen kalitatearen eta terminologia jatorri, erraz, zuzen eta aberatsaren aldekoak izan ziren bere ardura eta ahalegin guztiak.

Euskera aldizkarian, testuen moldaketak eta zuzenketak izan ziren bere gain urteetan. Inprimategira eraman aurretik, testuak orraztu, zuzendu eta, batez ere, joskerari ukituak egin, adizkera egokiak ezarri, oro har, xehetasun akademikoak. Era berean ekin zion argitaratzeko ziren testu sarituak zuzentzeari: Larrartek estiloari, gramatikari eta lexikoari zegozkienak begiratzen zituen.

Ondo merezirik, Euskaltzaindia Jose Mari Larrarte euskaltzain urgazle izendatu zuen 1987an eta ohorezko kide 2002an.



Euskaltzaindiako batzar baten ondoren

Bere lan eta idaztiak

Jose Mari Larrartek ezer gutxi argitaratu zuen, euskara arloan bere ezaupideak handiak izan arren. Baliteke, agian, berekotzat gaurdaino aitortu gabe, berak laguntza moduan egindako zenbait lan izatea. Bere literatura lana aipatu dugu lehen. Orain, horren laburpena egingo dugu.

Bere gaztaroan eta irakasle aldiko lehen urteetan berrogeita hamar euskal poema inguru idatzi zituen: Horietako batzuk *Horizontes* eta *Redención* aldizkarietan argitaratu ziren. Gehienak, barnerakoiak eta erlijiosoak dira. Behin Orixeri erakutsi omen zizkion eta, ha-

ren ustez, poema haiek Lizardiren ukitua zuten. Izan ere, Lizardiren irakurle goiztiarra izan baitzen Jose Mari. «Neguz udaberri» (1957) bere poema, adibidez, sinbolo eta metafora barnerakoez josita dago: hona mendi-zelai elurtu eta eguraldi hotzaren unetik hara jasoak:


[...] Larrosoak arantzartean
bai lora ederrik azi!
Oñazeak ere gure baitan
zerutar maitasun, grazi...
Neke-indarrez betiko udaberri
goitar bat lora erazi,
zuk esanik baitakigu, Jauna:
iltzeak damaigu bizi...

Horrez gainera, dozena bat sermoi eta liturgiako hitzaldiak utzi ditu: Eguberri eguna, Ostegun Gurena, Meza berria, Misio eguna, Jau-nartzea, Sorkunde Garbia, eta abar.

Pasiotarren anaiarteko «Euskal Pastoral Elkartea», gure «Araudia» eta beste lan batzuk euskaratzen lagundu zuen.

Esan bezala, bere «Euskal aditza eta atzizkiak» (1954), Gabiriako urteetan, eskolako oharrak bezala eginak, eta 30 orrialde makinatu ematen zutenak, harrera ona izan zuten, baina ez zituen argitaratu. Euskal aditzaren berrikuntza nabariena hauxe zen: bizkaiera eta gipuzkera paradigmak parekatzea, bakoitzaren aditz morfemak konparatzeko era eta orobat lehenengoz bereiztea aditzeko «nor/zer, nori, nork» egiturak.

Euskaltzaindiko batzordeetan eginiko talde lanetan bere jarrera bestelakoa izan zen, Jesus Mari Makazaga, gramatika batzordeko idazkariaren esanetan. Larrartek esku-hartze zabala izan zuen gramatika batzordean *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* izenpean orain arte antolatu dituen bildumetan. Bere ahalegina honetan zen: *I* liburuan (1985) batzordekide eta ohar-egile bezala; *Eraskina I* (1987), ohar-egile eta txostengile; *II*-an (1987) ohar-egile eta txostengile; «*Euskal Gramatika laburra: Perpaus Bakuna*»n (1993), batzordekide; *IV*-an *Juntagailuak* (1994), batzordekide eta ohar-egile; *V*-ean *Mendeko Perpausak-1* (1999), ohar-egile eta txostengile; *VI*-an *Mendeko Perpausak-2* (argitaratzeaz) batzordekide.



Poema bat

Bere artikuluei buruz, hauek izan dira bere emaitzak: «Batasunerako proposamenak»; Gramatika batzordeak Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrerako prestatutako txostena (*Euskera* 39-1994, 3), txostengile; «Okerrak zuzenduz», Gramatika batzordeak Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrerako prestatutako txostena (*Euskera* 39-1994, 3).

Lizentziaturarako egin zuen «El prefijo *Bait* en “Onsa hilceco bidia” de Juan Tartas» tesina da bere lanik zabalena; 302 orriduna. Argitaratu gabe dago, nahiz eta bere laburpena *Euskera XXVIII* (2.aldia) (1983,1), 28. aldizkarian agertu. Han aztertzen du Tartaseko Juan, Maule ondoko Txerauten 1610 edo 1612 inguru jaio zenaren «Bait» aurrizkiaren erabilpena.

Bestelako zaletasun eta lanak

Eusko Legebiltzarreko zereginetatik 1991ko urtarrilean jubilatua zen, 65 urte zituela. Handik hilabete batzuetara Erromara joan zen artxiboetako Diplomatura ikastera Vatikanoko Artxibistika Eskolara. Hurrengo urtean Deustura aldatu zen pasiotarren Eskualdeko artxiboa antolatzekotan. «Los Archivos de la Provincia de CORI» izeneko idazki bat utzi zuen. Urteen buruan 1995ean Tafallan agertzen da eta urte bi geroago Gasteizen, bere gaitz larria agertu zen arte.

Musika, fotografia eta perretxikoak ziren bere beste zaletasunik handienak. Melodia



Mendigoizale lagunekin



Argitaratzeke dagoen Tesina



Gregoriano ikastaroan

zale eta musika onaren jarraitzaile, beti kantaldi on bat entzuteko edo koruan parte hartzeko gertu. Eubako garaian eginiko gregoriano ikasketek maisu lanetan eta liturgian asko lagundu zioten.

Argazkizalea, beti bere makinaz hegalean batetik festa egunak eta ateraldiak jasotzeko gertu. Adibidez, Eubako euskal jai gogoangarriak.

Azkenik, oso gogokoa zuen mendira perretxikotara joatea. Beribila eta laguna hartu eta «hi hortik eta ni hemendik» mendia arakatzeari. Uzta lekuak, ordea, isilik gorde ohi zituen. Hitzez esaten ez zuena bere irribarrez adierazten zuen.



Koldo eta M.^a Isabel Sarasolarekin

Pasiotar jakintsu eta apala

Jose Mari Larrarte zenaren langile kalitatea azpimarratu zen haren hiletetan. Leiala eta arduratsua izanik, bihotz zabala eta begiramen handikoa ere bazelako, lan isila, apala eta erantzukizunez betea egin zuen. Euskaltzaindikiko lagun batzuk haren bizitzako merituok goraipatzen ahalegindu ziren.

Lan batzarretan han zen ardurarik handienaz. Hala ere, bigarren mailan kokatzen zen, eguneko esamesak besteentzako utzirik. Entzule begiratu zen eta abegi maitekorrekoa, eztabaidetan bakezalea. Hitzak aukeratzen arretatsua eta gizabidekoa. Norbaiten eraginaraz, hitz egitera ausartzen zenean, bere iritzia kontuan hartzen zen, euskara arloan bere sena zurrak zelako.

Nahiz bere jarrera ez zela eta begiratu izan, euskal gramatikaz edo lexikoaz inolako okerririk entzuten zuenean bazekien aurre egiten. Berdin gertatzen zen Euskal Telebista edo Irratian aurkitzen zenean: ez zuen ezkututzen bere haserrea esaera traketsen aurrean edo, bere ustetan, gramatika arauak zapaldu edo lexikoa zabartzen zenean. Bere inguruan bizi izan direnek irakurle porrokatua ezagutu zuten: liburuak, liburuxkak, egunkariak. Irakurri ahala, berriz, gorriz azpimarratzen zituen gustuko pasarteak.

Egundo ere ez zen ibili lanpostu edo tituluen atzetik edo eta bere onurarako postu hobeen bila. «Nik ez dut goserik eman toki bila», esan

ohi zuen. Hartutako betebeharrak egokien eta erantzukizunez betetzen ahalegintzen zen, nahiz eta beti ez izan jardukizun gozoak.

Jose Mari Larrartek euskara sakondu eta irakastera eman zituen orduak eta egin zituen lanak bizikizuntzat hartu zituen, euskararen aldeko asmo eta ahalegin horretan erre baitzuen bititza osoa.

Bizialdi guztian ikerketari eta adimen argitzeari ekin zion. Gauzak ondo egitea zuen atsegin

eta hitz edo esaldi egoki baten bila garunak estutzen zituen, bere gogoko forma idoro arte. Hala gertatzen zitzaion berak euskartu lanetan ere: ez zen lasai adiera egokiko hitza aurkitu arte.

Asko irakurtzen zuen; eta azken urteetan euskal klasikoak irakurketari ekin zion. Ez irakurri bakarrik, aztertu eta zehaztasun sakonez landu ere bai. Hitzaren jatorria ondo ezagutzen zuen, beraz, ez zegoen ezertan hari kontra egiterik.



Euban, ikasle ohien bileran (1990)

Gaixoaldian burujabe

Minbizia aurkitu zioten prostatan 2002an eta, nahiz ebakuntza egin, hurrengo urtean berritu egin zitzaion. Ebakuntza berri batek hezur eta biriketarinoko metastasia sortarazi zion. Orduan erradioterapien eta kimioterapien kalbarioa jasan zuen 2004 urtearen buruan. Eritasuna gaiztorantz zihoakiolako, Deustuko pasiotarren gaixotegira jaso zuten. Sakramentuen gogo indargarriaz eta anaiarteko otoitzaren adonez eman zuen azken arnasa.

Gaixotasunaren zorigaiztoan ez zuen bururik galdu, bere jabe agertu baizik etxekoan eta auzokoen miresgarri. Gauzarik arruntena bailitzan aipatzen zuen bere eritasuna, beti ere irribarrea galdu gabe; ziur, barne adoneak eusten zion nahigabeen erdian.

Harturiko dohainak ezagutu eta bihotzez eskertzen zituen, bere apaizgoaren 50 urtemugan (1999) aditzera eman zuen bezala:

Bide honetan zeruko Aita
izana dugu gidari;
indarra eta kemena eman ez
gure bihotz ahulari:
beraz, aho-bihotzez,
bidezkoa dugunez,
hurbil gakizkion hari,
Mariak bezala «Magnificat»
barnetik jalkiz kantari.

Hala ere, gaixoaldian otoitz egitea eta batez ere, Aitagurean bezala, «egin bedi zure nahia» aitortzea ez zela hain samurra agertu zuen Juan Luis Goikoetxearekin izan zuen elkarriketan. «"Egin bedi zure nahia" esatea gogorra da. Hala ere, beste batek lehenagotik askoz gehiago sufridu eban. Hori bera esan eban Jesukristok Jetsemaniko baratzen; Hark baekian zer etorren... Norbera ondo dagoenean, ez gaisorik, errezago errezatzen da, baina hobeto ez dot uste.»

Hiletako elizkizunak Urretxuko pasiotarren elizan izan ziren 2004ko urriaren 25ean, etxekoan, pasiotarren, elizgizonen eta herriarren parte-hartze handiarekin. Euskal kulturako ordezkariak ere bazen tartean, hilberria gogoan eta haren arimaren aldeko otoitza ahoan.



Eskela

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Larrarte familiari
- Koldo Sarasolari
- Sole Erbitiri
- J.M. Arzalluzi
- Víctor M. Arbeloari
- José M. Suárezi
- Frantzisko Artolari
- Joxemari Iriondori
- Ricardo Badiolari
- J.M. Larrarteren ikasle ohiei, bereziki, Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka eta Gramatika batzordekideei

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2006ko urria

Ale-kopurua: 2.100

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2471-1
84-457-2474-6

L.G.: BI - 2746-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística